

UDAL KOMISIOEN INGURUKO INTERPELAZIOA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udal Batzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Udal komisien inguruko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Donostiako alkatea den Eneko Goia jaunari, hari buruzko azalpenak Udalbatzan eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Uztailaren 13an Udalbatzatik eratortzen diren Batzordeen eraketa burutzekotan da eta, eraketarekin batera, Batzorde bakoitzari dagokion lehendakarien eta lehendakariordeen hautaketa. Horri dagokionez, ekainaren 29ko Udalbatza egin aurretik eta beste inorekin hitz egin gabe, PNV eta PSEk osatzen duten gobernuaren aldetik zabaldu zen batzordeetako presidentzien banaketa nola egingo zuten.

Udalbatzaren aurretik eta Udalbatzan bertan aurreratu genuen ez zela banaketa era egokia, eta halaber eskua luzatu genuen guztien artean egiteko. Ez gara bakarrak hausnarketa hori helarazten. Aldiz, erantzuna jaso aurretik komunikabideen bidez PNV eta PSEren gobernuak jarraitu du proposamen berdinarekin, inongo pausorik eman gabe.

Ondoren ere funtzionatzeko moduaren inguruko proposamena egin genuen, beste talde batekin, zehazki Irabazirekin, horretarako proposamena aurkeztuta. Eta erantzuna berriro ere presidentzia guztiak gobernuarentzat izango direla berretsi zuten.

Gogoratu nahi dugu aurreko legegintzaldian Batzorde horien buruak oposizioan zeudela, gehiengoz mozorrotuta, akordioa egin zutelako gobernuakideak kontuan hartu gabe eta, denon arteko politika landu gabe eta horregatik guztiagatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zergatik ez da kotsentsua landu eta bilatu?
- Zergatik alboratu da, guztion arteko proposamen bat bilatzeko aukera?
- Gehiengoz gain, parte guztien arteko elkarrizketa lantzeko bidea guztiz baztertua izango da gai honekin edo oro har?

Donostian, 2015eko uztailaren 10an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia